

SEDIMENTOLOGIAREN ARAZOAK: Jaturabeko errekarriak; kasu konkretu bat

Tricart, Cailleux eta beste idazle batzuren (1) iturrietan ikasi duenak badaki ongi geomorfologian, eta batez ere erreken dinamikaren arloan, sedimentologi teknikek nolako garrantzia daukaten.

Ibai eta erreketako terrazak eta harritegiak aztertzean, errekarri bakoitzaren luzera, zabalera, borobiltasun-indizea etab. zuzenki neurtzen dira.

Borobiltasun-indizeak ez du guztia argitzen; hau ondo dakite espezialistek, indize egoki bat edukitzeak ez bait du esan nahi material horrek garraio luzea eduki duenik. Beti kontuan eduki behar dugu harri bakoitzaren litologia eta gogortasuna alde batetik, eta bestetik *nondik* eta *nola* galderak, garraio-prozesua aztertzean.

Hau argitzeko gure arteko naturan gertatu den adibide bat azalduko dugu.

Jaturabe deitzen dugun toki batean, urtegi baten azpian urgoniar kararrizko harritegi bat zegoen. Harritegi hau Araozko bidean egin ziren karreteralanetako ondorioa zen. Harritegi honen gainean (marrazkian jartzen ditugu emari eta ur-presiozko kondizioak) ur-zirristada bat erortzean (urtegiko hustutegitik), 70 ordu burutu ondoren harri hauek borobildu ziren, errekarri bihurtuz eta sakonune bat eratuz (yar yita). Batz best 200/300-ko indizea lortu dute, indize benetan handia (2).

Honen ondorioa garbia eta ezaguna da. Berrogei edo hirurogeitamar ordu, kondizio berezietan, kararrizko harriak borobiltzeko nahikoak dira; erreka baten dinamika argitzeko asmoz, terraza edo harritegi bateko materialak aztertzean prozesu osoaren gora-beherak kontuan hartzea komenigarria zaigu eta, batez ere, bertako kondizioak.

(1) Tricart, Cailleux: "Initiation à l'étude des sables et des galets". S.E.D.E.S., Edit. Paris.
Tricart, J.: "Précisions géomorphologie" S.E.D.E.S., Edit. Paris.

(2) Indizea: 2r/L.




JATURABE

ESKALA 1:100

Materiala : Urganiaz kararria


zentila : 32x23x18 cms

Erreka-harri




ALBO BISTAKO PROFIL edo EBAKIAK

ESKALA 1:100



ESKALA 1:200



Ustutegi-ko ehok 500mm diametro.

Ur lozeraren presioak 16 Kgr.

Denbora	77-78'ko segoa	40 ordu
	79'ko apirleak	30 ordu
		70 ordu.